



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

GAUTEGIZ ARTEAGAKO DIRULAGUNTZEN 2019-2021 PLAN ESTRATEGIKOA

ATARIKOA

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarritzkoa da. Beraz, diru-laguntzak eman nahi dituzten Udal guztiek euren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa ontzat eman behar dute.

Lege horren azken xedapenetatik hirugarrenean xedatuta dagoena betetzeko, Gobernuak uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua argitaratu zuen, Diru-laguntzen gaineko lege orokorra garatzeko, eta Errege Dekretu hori indarrean jarri eta sei hilabeteko epean (2006ko urriaren 25ean), diru-laguntzen plan estrategikoak eta indarrean dauden programa sektorialak bertan ezarrita dutenei egokitu zaitzkie.

Diru-laguntzen gaineko azaroaren 17ko 38/2003 Legea, beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetu eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea eratzten duten printzipioetako bat gardentasunarena da. Printzipio horrek, Legean egituratzen diren beste hainbat tresnarekin batera, ondorio zuzenak ditu diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketako eraginkortasun eta eragingarritasun mailak handitzeari dagokionez.

Ildo horretatik, merkatuari eragin ahal dizkion distortsio eta interferentziak saihesteko aukera emango du diru-laguntzen gaineko informazio handiagoa izateak, baita administrazio publikoen jardueren konplexutasuna argitu eta horiei koherentzia ematekoa ere, gainjartze oro eragozten dela.

Eraginkortasuna hobetzeko bide horretan, diru-laguntzen plan estrategikoa [politika publikoak antolatzeko tresna, onura publiko edo interes sozialeko jarduera bat bultzatu edo helburu publiko bat sustatzea xede duena] taxutzea aurreikusten du Legediak. Plan estrategikoko hori urte anitzekoa izango da, eta diru-laguntzeak sortu baino lehenago taxutu beharko da.

Horregatik, Udal honek Diru-laguntzen Plan Estrategikoa ontzat eman du, segidan ageri diren artikuluekin.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Denbora, indarraldia eta eguneratzea

Plan honek hiru urteko indarraldia izango du, aurtengoa barne; beraz, 2019tik 2021era arteko indarraldia izango du. Hala ere, hori ez da oztopo izango dirulaguntza ildo batzuek indarraldi txikiagoa izan dezaten.

Aurrekoa gorabehera, jarraipen txostenak ikusirik eta aurrekontu eskuragarritasunak kontuan harturik, dirulaguntza ildoak urtero aldatu, beste batzuen orde ezarri edo kendu ahalko dira.



Ildo bakoitzaren barruan, edukiaren edozein alde eguneratu edo aldatu ahalko da, jarraipen txostenetan islatutako emaitzen ondorioz, helburuen lorpenen ondorioz, inbertitutako baliabideen egokitzapenaren ondorioz edota behar bezala justifikatutako arrazoen ondorioz.

Jakina denez, aurrekontu aldarazpenetan plan estrategiko honek ezartzen ez duen dirulaguntza ildorik ezarri nahi izanez gero, plana ere aldez aurretik edo aldi berean aldatu beharko da. Dirulaguntzen plan estrategikoa ez da aldarazi beharko dirulaguntza ildoak aldarazterakoan, baldin eta aldarazpenaren xedea bada dirulaguntza ildo bati dagokion zenbatekoa aldatzea eta ildo horren gainerako ezarpenek aldaketarik gabe jarraitzen badute; hori guztia behar bezala egiaztatu beharko du kudeaketa zentroak espedientean.

2. artikulua.- Dirulaguntzak emateko prozedurak

Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzeak benetan ezartzeko, zainpeketa egokiak sartu beharko dira urte bakoitzeko Udal Aurrekontuetan, eta, dagokionean, bere kontzesioaren oinarri arauemaileak barnean hartzen dituzten ordenantzak eta/edo deialdiak ontzat eman beharko dira, salbu eta zuzenean edo hitzarmen bitartez burutzen bada.

3. artikulua.- Aurrekontu egonkortasuna

Diru-laguntzak erabakitzeke, nahitaezko baldintza izango da aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzea; horregatik eurak zelan eman arautzeko oinarriak, eta onartu beharreko aurrekontu-esleipenak helburu horietara egokituko dira uneoro.

4. artikulua.- Izaera juridikoa

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa tresna bat da, zeinean bat egiten baitute, alde batetik, dirulaguntzak ematea eta arautuko duten printzipio orokor eta inspiratzaileen gauzapenak eta haien justifikazioak eta, bestetik, bidean dauden dirulaguntzen kontrol neurrien ezarpenak zeinek, dirulaguntzak eman ondoren, ikusten diren desbideratzeak zuzenduz, etorkizunean emango direnak hobetzea ahalbidetuko baitute.

Eta adierazitakotik eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren erregulaziotik ondorioztatzen da haren xedea dela efikaziarik handiena lortzea eskuragarri dauden baliabideak erabiliz, horretarako aurrekontu egonkortasunaren printzipioari darizkion mugak errespetatuz.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Gainera, Dirulaguntzen Plan Estrategikoak izaera programatikoa bai baina arauzko lerrunik ez duen kudeaketa tresna denez gero, ez du zuzeneko eraginik dirulaguntzen onuradun potentzialen eremuan, eta, modu horretan ez dei ez eskubiderik ez betebeharririk sorrarazten. Haren eraginkortasuna lotuko zaio dirulaguntzen ildo desberdinak abian jartzeari, betiere, beste baldintzatzaille batzuen artean, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak aintzakotzat hartuz. Hori dela eta, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez du esan nahi balizko onuradunek eskubiderik dutenik, eta, plana ez bada bertan jasotako moduan gauzatzen, ezingo dute kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu.

Plan estrategiko honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko, urte bakoitzeko udal aurrekontuan behar diren kredituak jasoko dira eta emakida arautuko duten oinarriak onartuko dira edo dagokion dokumentua.

Haren barne eraginek, ordea, lotura dakarkioite udal korporazioari, bi zentzutan. Batetik, planean ezarrita ez dauden ekintza ildoetarako dirulaguntzen emakida debekatuz. Bestetik, ezarpenen aldean izan daitezkeen desbideraketak arrazoitzeko betebeharririk zehatza ezarriz, betiere Dirulaguntzei buruzko Legearen Arautegiaren 15. artikulua ezarritakoaren arabera jarraipen txostenetatik sor daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe.

Gainera, gastuaren kontrola beharrezkoagoa den momentu hauetan, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa sustapen ekintza arrazionalizatzeko baliagarria izango den tresna bilakatu behar da; gauzak horrela, ekintza horri eutsi ahalko dio eta, era berean, gaur egungo zirkunstantziak direla-eta mugaturik egon daitezkeen baliabideak errentabilizatu ahalko dira efikazia irizpideen bidez.

5. artikulua. Planaren edukia

Dirulaguntzen Plan Estrategikoak honako eduki hau izango du:

a) Helburu estrategikoak; planaren indarraldian ekintza instituzionalaren bidez lortu nahi diren eragina eta inpaktua azalduko dituzte eta horiek ezinbestean lotu behar zaizkie aurrekontu programetan ezarritako helburuei. Helburu estrategikoek



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

merkatuari eragiten diotenean, zuzendu nahi diren akatsak ere identifikatu beharko dira, betiere Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak bere 8. artikularen 2. idatz zatian ezarritako eraginak aintzat hartuz.

b) Jarduketa plana zehazten duten dirulaguntza ildoak. Dirulaguntza ildo bakoitzari begira, honako alderdi hauek azaldu beharko dira:

1. Ukitutako eskumen atalak eta dirulaguntzak zuzentzen zaizkien sektoreak.

2. Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak.

3. Lortzeko beharrezko epea.

4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak; horietan guztietan zehaztu beharko dira herri administrazioen, Europar Batasunaren eta sustapen ekintzetan parte hartzen duten organo publiko eta pribatuen ekarriak, bai eta, osagarritasunaren printzipioa kontuan hartuz, dirulaguntzen onuradunei dagozkienak ere.

5. Ekintza plana; bertan zehaztuko dira planean identifikatutako dirulaguntza ildoak praktikan jartzeko mekanismoak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak bere 9. artikuluan emakidarako aipatutako oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko ildoak mugatuko dira, egutegia ezarriko da eta, hala badagokio, kudeaketari begira herri administrazioen arteko koordinaziorako irizpideak jasoko dira.

c) Ezarritako dirulaguntza ildoei aplikatu dakiekeen etengabeko jarraipen eta ebaluazio araubidea. Ondorio horietarako, dirulaguntza ildo bakoitzerako zehaztu beharko da planaren helburuekin erlazionatutako adierazleen multzoa; izan ere, jarraipenaren arduradunek hori aldizka-aldizka jasota, jakin ahalko dute zein den egoera eta zeintzuk lortutako aurrerapenak aldeztu aurretik zehaztutako helburuak betetzerakoan.

d) Aurreko plan estrategikoen ebaluazioaren emaitzak, egindako txostenen edukia jakinarazteko.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

2. Plan estrategikoaren edukia honako honetara mugatu ahalko da: helburuei, kostuei eta finantzazio iturriei buruzko azalpen memoria bat egitera, hain zuzen. Hori honako kasu hauetan:

a) Zuzenean emandako dirulaguntzak, betiere Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak bere 22.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Ministerio saileko titularrak modu arrazoituan zehaztutako dirulaguntzak, betiere esku hartze publikoko lanabes gisa duten garrantzi ekonomiko edo sozial txikia kontuan hartuz.

3. Dirulaguntzen plan estrategikoen izaera programatikoa dauka eta haren edukia ez du sortzen ez eskubiderik ez betebeharririk; haren eraginkortasuna baldintzaturik dago dirulaguntza ildoak abian jartzearen arabera, betiere, bestek beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu eskuragarritasunen baldintzatzailei men eginez.

Gauegiz Arteagako Udalaren dirulaguntzen 2019-2021 aldirako plan estrategikoa honako eranskin honetan jasotzen da: “2019-2021 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoaren eranskinean”, hain zuzen. Dirulaguntzen kudeaketa organoek sailkatuta, agiri horretan honakoak zehazten dira:

- Helburu estrategikoak.
- Ukitutako eskumen atala.
- Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak.
- Denbora tartea / Lortzeko beharrezko epea.
- Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak.
- Ekintza Plana.
- Jarraipen eta ebaluazio araubidea.
- Araubidea / Emakida modalitatea.
- Onuradunak / Hartzaileak.
- Zinezko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena.



- Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa.

6. artikulua. Helburu estrategikoak eta printzipio orokorrak

Plan honen ondorioetarako, dirulaguntzat hartzen dira udalak pertsona publiko edo pribatuen alde edo nortasun juridikorik gabeko erakundeen alde egindako diru esleipen guztiak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Dirua zuzeneko kontraprestaziorik gabe eman behar zaie onuradunei.
- b) Dirua jasotzeko baldintza bat ezarri behar da: dirua proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat egiteko edo jarrera bat izateko erabiltzea (xede gaiztatuta zein gauzatzeko egon daiteke), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea. Gainera, onuradunak ezartzen diren betebeharrak eta materialak bete beharko ditu.
- c) Diruz lagundutako proiektuaren, ekintzaren, jarreraren edo egoeraren xede herri edo gizarte onurako jarduera bat edo herri helburu bat sustatzea izatea.

Lehentasunezko helburuei dagokienez, honakoak jasotzen dira: erabilera publikoko edo gizarte intereseko jarduera guztien sustapena edo helburu publiko baten bultzada, betiere irabazasmorik gabe etekin ekonomiko urriko jarduerak garatzeko eta sustatzeko laguntza emanez eta elkarte sareak nahiz herritarrek udal jardunean parte hartzeko partaidetza sareak sortzea bultzatuz.

2019-2021 aldiari begira, Gauegiz Arteagako Udalaren plan estrategiko honen eta laguntza eta dirulaguntza ildoen helburu orokorrak honakoak dira:

- Gauegiz Arteagako Udalaren laguntza eta dirulaguntza ildoak eta programak ezartzea eta normalizatzea.
- Dirulaguntzen udal kudeaketa hobetzea eta arrazionalizatzea, zeharkakotasunaren, efikaziaren eta efizientiaren alderdiak baloratuz laguntza ildoak kudeatzeko orduan.
- Udalak izapidetu beharreko dirulaguntzak emateko eta justifikatzeko araubidea erregulatzea.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Dirulaguntzen eta herri administrazioen arloko erregulazio juridikoak zenbait jarduketa printzipio orokor ezartzen ditu; horiek guztiak plan estrategikoaren funtsezko elementuak dira eta dirulaguntzen arloko udal kudeaketa gidatu behar dute.

Honako hauek dira:

- Publizitatearen printzipioa: printzipio hau gauzatzen da deialdiaren publizitatea bermatzen duen aldez aurreko deialdian eta emandako dirulaguntzen publizitatean; hori ez da oztopo izango dirulaguntzak zuzenean eman daitezen, betiere azaroaren 17ko 38/2003 Legean, dirulaguntzei buruzkoan, udalaren aurrekontuaren betearazpen oinarrietan eta gainerako arautegi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorrituz.
- Lehia askearen printzipioa: printzipio hori gauzatzen da onuradunek bete beharreko baldintzen zehaztapenean, betiere baldintza berdintasunean daudenentzako sarbideragarritasun edo eskuragarritasuna murriztu gabe, funts publikoak banatzean lehia eta berdintasuna bermatuz; hori ez da oztopo izango dirulaguntzak zuzenean eman daitezen, nahiz eta horretarako aldez aurretik beharrezko aurrekontua zainpetu beharko den arautegi aplikagarrian ezarritakoaren arabera.
- Objektibotasunaren printzipioa: dirulaguntzak emango dira aldez aurretik deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera, betiere onuradun potentzialek aldez aurretik ezagutuko dituztela bermatu ahal izateko.
- Baliabide publikoak ematean gardentasunaren eta berdintasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioak. Printzipio hori gauzatuko da lehiaren, objektibotasunaren eta publizitatearen printzipioak betez; hori, hala ere, ez da oztopo izango dirulaguntzak zuzenean emateko legezko kasuak aplikatu daitezen.
- Efikaziaren eta efizientziaren printzipioak: emandako dirulaguntzen jarraipen eta kontrol prozedura bat ezartzean zehaztutako helburuak betetzeko efikazia eta baliabide publikoak esleitzeko efizientzia, betiere dirulaguntzak baloratuz eta proiekturik efizienteenei esleitzuz; dena dela, jasotako dirulaguntzak kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu beharko dira betiere.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- Aurrekontu egonkortasunari eta gastu arauari egokitzeko printzipioa: dirulaguntzak emateko, aurrekontu egonkortasunaren eta finantzazio iraunkortasunaren printzipioa eta gastu araua bete beharko dira, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoak, ezarritakoaren arabera.
- Erakunde eskatzaileen helburuak diruz lagundutako jarduerak burutzeko berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioetara moldatzen diren kontrolatzeko eta aztertze printzipioa.

II. KAPITULUA. JARDUKETA ILDO ESTRATEGIKOAK

Plan estrategiko honetan jasotako jarduketa ildo estrategikoak jarraian zehazten dira. Hala ere, bakoitzaren xehetasuna “2019-2021 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoaren eranskinean” dago.

- Kultur eta kirol jarduerekin zerikusia duen asoziazionismoa sustatzea
- Udal haurreskolan matrikulazioak sustatzea.
- Berdintasuna Gauegiz Arteagatik kanpo dauden udal kiroldegietako tasetan.
- Berdintasuna Gauegiz Arteagatik kanpo dauden udal eskola musiketako tasetan.
- Gauegiz Arteagako herritarren artean euskara ikastea sustatzea.
- Kanala auzoko jaiei laguntza eskaintzea.
- Kanala auzoko gizarte etxean aurrera eramaten den jarduera babestea.
- Euskararen erabilera sustatzen eta bultzatzen duten ekimenak eta proiektuak bultzatzea.
- Gauegiz Arteagako merkataritza txikia dinamizatzeko ekintza.
- Gauegiz Arteagarentzat berebiziko interesa duten proiektuak.

II. KAPITULUA. ONURADUNAK ETA EMATEKO PROZEDURA

7. artikulua. Onuradunak



Dirulaguntzaren onuraduna izango da dirulaguntzak oinarri duen jarduera egingo duen edo ematea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona edo erakundea.

8. artikulua.- Dirulaguntzak emateko prozedura

Gauegiz Arteagako Udalak dirulaguntzak emango ditu dirulaguntzen arloan indarrean dagoen arautegiaren arabera eta lehia askeko araubidean egin beharreko deialdi publikoaren bidez edo, salbuespen gisa, zuzeneko emakidaren bidez, betiere pertsona fisiko edo juridikoen alde, publiko edo pribatuen alde, ondasun erkidegoen alde edo bestelako unitate ekonomiko edo ondare unitateen alde, baldin eta, nortasun juridikorik izan ez arren, dirulaguntza arrazoitzen duen egoeran dauden proiektuak, jarduerak edo jokabideak aurrera eramanez ahal badituzte.

Jarduera bat dirulaguntzaren edo laguntzaren xedea izan dadin udalaren aurrekontu orokorren kontura, honako helburu hauetariko bat bete beharko du:

- Udal eskumeneko helburuak osatzea, laguntzea, ematea, erraztea edo ordeztzea.
- Gizarte intereseko jarduera bat sustatzea.
- Interes orokorren edo auzokideen interes sektorialen defentsa helburu duten elkarteak bultzatzea.
- Gizarteratzen sorostea laguntza ekonomikoen bidez gizarte, geografi edo administrazio ahultasuneko egoeran dauden herritarrei, aukera berdintasunaren printzipioa babesteko.

Eman ahal izateko, honako prozedura hauek ezartzen dira dirulaguntzen emakidari begira:

- Lehia askeko araubidean emandako dirulaguntzak.
- Aurrekontuan jasotako dirulaguntza nominatiboak.
- Zuzenean emandako dirulaguntzak interes publikoko arrazoiengatik edo gizarte, ekonomia edo giza arrazoiengatik edo deialdi publikoa egitea zailtzen duten eta behar bezala justifikaturik dauden bestelako arrazoiengatik.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- Gauegiz Arteagako Udalari lege mailako arau batek dirulaguntzak emateko ezarritako emakida edozenbatekoa. Kasu horietan aplikagarri zaien emakida prozedurari jarraituko zaio haien arautegi propioarekin bat etorritz.

Orokorrean, dirulaguntzak lehiaketa bidez emango dira; horretaz gain, laguntza zuzena eman ahal izango da udal aurrekontuetan nominatibo gisa agertzen diren dirulaguntzen kasuan; eta dirulaguntzaren ezaugarrien, premiaren edo interes publikoaren arabera bestelako emakida prozedura bat eskatzen denean, indarreko legeriaren arabera, dagokion justifikazioa eginda erabili ahal izango da. Dirulaguntzei dagokien oinarrietan jaso beharko da arautzen den dirulaguntza ildo bakoitzari dagokion prozedura.

VI. KAPITULUA. ERAGINAK, EMATEKO EPEAK, AURREIKUSITAKO KOSTUAK ETA FINANTZAZIOA

9. artikulua. Eraginak

Plan estrategikoak zenbait jarduera garatu edo bideratu nahi ditu, udalerriko gizarte sektoreei era guztietako premia sozialak, profesionalak edota aisialdikoak asebetetzera zuzendutako proiektuak garatzeko aukera eskaintzea ahalbidetzeko. Hori dela eta, dirulaguntzaren jardueraren asmoa da:

- Interes orokorreko jarduerak egingo direla sustatzea eta toki erakunde honen eta partikularren arteko lankidetzaren bultzatzea, interes publikoko jarduerak kudeatzeko.
- Gure udalerraren gizarte zibil egituratuaren partaidetza bultzatzea, sustatzea eta sendotzea interes erkideko udal kudeaketako eremu desberdinetan eta gizabanakoen gizarte inklusioa sustatzea gizarte, geografi edo administrazio ahultasun egoeran dauden herritarrei zuzendutako laguntza ekonomikoen bitartez, betiere aukera berdintasunaren printzipioa babesteko.



Dirulaguntzen plan estrategikoa onartzeak ez du esan nahi balizko onuradunek eskubiderik dutenik, eta, plana ez bada bertan jasotako moduan gauzatzen, ezingo dute kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu.

Halaber, interes orokorreko jarduerak sustatzera bideratutako ekintzak hartu beharko dira aintzat; horretarako, urtero-urtero funtsak bideratu ahalko dira dirulaguntza mota horietara zuzenduz, behin udal aurrekontuan zainpetu eta gero.

10 artikulua. Burutzapen epeak

Oro har udalaren dirulaguntzek urteko burutzapen epea izango dute (diruz lagundutako jarduerak aurrera eramateko), justifikazioari begira hautatuko den epea urte naturalari dagokiona izango da.

Gerta daiteke kasu batzuetan zirkunstantziek komenigarri egitea urtetik gorako burutzapen epea ezarri beharra edo epea aldarazi beharra; halakoetan, hori guztia dirulaguntzen oinarrietan jaso beharko da eta kasu horretan urtero-urtero bete beharko dira indarreko legeriak ezartzen dituen baldintzak.

11. artikulua. Aurreikusten diren kostuak

Plan estrategiko honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko, urte bakoitzeko udal aurrekontuan behar diren kredituak jasoko dira eta, hala badagokio, lehia askeko dirulaguntzen deialdia arautuko duten oinarriak onartuko dira edo, kasu zehatzean, emakidaren oinarri arautzaileak jasoko dituzten ordenantzak onartuko dira, edo zuzeneko emakida onartzen duen erabakia hartuko da.

Dirulaguntzak eman ahal izateko, aurrekontu egonkortasunaren, finantza iraunkortasunaren eta gastu arauaren printzipioak bete beharko dira.

Kasu bakoitzeko kostuak mugatuko dira Gautegiz Arteagako Udalak aurrekontu orokorrean urtero-urtero finkatutako zenbatekora.

Ezin izango da zehaztutako zenbatekotik gorako dirulaguntzarik eman. Edonola ere, kredituek izaera mugatzaile eta loteslea dute; beraz, ezin izango da euren zenbatetik gorako gastu konpromisorik hartu.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

12. artikulua. Finantzazioa

Plan estrategiko honek zehazten dituen dirulaguntzak udal aurrekontuaren kredituen kontura finantzatzen dira. Aurrekontua 2019, 2020 eta 2021eko ekitaldietarako zainpetu da bertan zehaztutako aurrekontu aplikazioetan; horiek guztiak eguneraturik agertzen dira udal webgunean.

VI. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN KONTROLA, JARRAIPENA ETA GARDENTASUNA

13 artikulua. Kontrola eta jarraipena

Udalak plan honen betetzea kontrolatuko du indarrean egon bitartean.

Alkatetzak urtero txosten bat aurkeztuko dio udalbatzari, hartutako ekintzak azalduz eta emandako dirulaguntzen laburpena jasoz.

14. artikulua. Planaren gardentasuna

Gardentasun printzipioa betetze aldera, udalak emandako dirulaguntza guztiak (bakoitzaren ildo estrategikoak, laguntza programak eta deialdiak barne) udal webgunean argitaratuko dira urtero, bai eta Dirulaguntzen Base Nazionalean ere, 38/2003 Legeak, dirulaguntzei buruzkoak, bere 20. artikuluan ezarritakoaren arabera; gauzak horrela, erakunde jasotzailea aipatuko da, bai eta dirulaguntzaren zenbatekoak eta zuzenduta dagoen proiektu edo ekintza ere. Ondorio horietarako, atal bakoitzeko teknikariak arduratuko dira publizitate horri izapidea emateaz.



DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ERANSKINA

A)

DIRULAGUNTZA ILDOA: KULTUR ETA KIROL JARDUEREKIN ZERIKUSIA DUEN ASOZIAZIONISMOA SUSTATZEA	
1. Helburu estrategikoak	Udalerrian kultur eta kirol jarduerak egiten dituzten udal elkarte guztiak sustatzea, betiere gizarte eta berdintasun arloko gutxieneko balioak betez.
2. Helburuak	Udalerrian kultur eta gizarte dinamika parte-hartzailea sortzea, udalerriri "bizitza" emanaz.
3. Lorpen epea	2019-2021.
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none">- 2019ko ekitaldia: 8.000- 2020ko ekitaldia: 8.000- 2021eko ekitaldia: 8.000
5. Ekintza Plana	Deialdirako gutxieneko baldintzak eta funtzionamendu egokirako zuzkidura ekonomikoa betetzen dituzten elkarteentzako dirulaguntza bidez; era berean, zenbait jarduera zuzenean finantzatzen dira eta eskaintzen da udalak eskain dezakeen materiala.
6. Planaren helburuekin zerikusia duten jarraipenaren, etengabeko ebaluazioaren eta adierazleen erregimena	Adierazleak: Honako adierazle hauek aztertuko dira: <ul style="list-style-type: none">- Eskaera kopurua- Emakida kopurua- Uko kopurua- Emandako kreditua, guztira
7. Emakidaren araubidea / modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenduna <input checked="" type="checkbox"/> Norgehiagoka
8. Onuradunak	Elkarteentzako dirulaguntzen ordenantzaren baldintzak betetzen dituzten pertsona juridikoak.
9. Ukitutako aurrekontu aplikazioak eta zenbatekoak	334 48102 Udalerriko elkarteentzako dirulaguntza



B)

DIRULAGUNTZA ILDOA: UDAL HAURRESKOLAN MATRIKULAZIOAK SUSTATZEA	
1. Helburu estrategikoak	Udal haurreskolan matrikulazioak sustatzea Gauegiz Arteagako herritarren artean.
2. Helburuak	Gauegiz Arteagako udal haurreskolako matrikulazioak handitzea.
3. Lorpen epea	2019-2021.
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none">- 2019ko ekitaldia: 9.000*- 2020ko ekitaldia: 9.000*- 2021eko ekitaldia: 9.000* *B), C), D) eta E) dirulaguntza ildoak dirulaguntza deialdi bakar baten bidez exekutatu dira aurrekontu aplikazio baten kontura; horren zenbatekoa dirulaguntza ildo hauen artean banatuko da, aurkeztutako eskaeren heinean.
5. Ekintza Plana	Gauegiz Arteagako haurreskolan matrikulatzeagatiko dirulaguntzaren bidez.
6. Planaren helburuekin zerikusia duten jarraipenaren, etengabeko ebaluazioaren eta adierazleen erregimena	Adierazleak: Honako adierazle hauek aztertuko dira: <ul style="list-style-type: none">- Eskaera kopurua- Emakida kopurua- Uko kopurua- Emandako kreditua, guztira
7. Emakidaren araubidea / modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenduna <input checked="" type="checkbox"/> Norgehiagoka
8. Onuradunak	Gauegiz Arteagako pertsona erroldatuak gutxienez sei hilabeteko antzinatasunarekin, baldin eta deialdiaren gutxieneko irizpideak betetzen badituzte.
9. Ukitutako aurrekontu aplikazioak eta zenbatekoak	231 48000 Familientzako dirulaguntza

C)

DIRULAGUNTZA ILDOA:



BERDINTASUNA GAUTEGIZ ARTEAGATIK KANPO DAUDEN UDAL KIROLDEGIETAKO TASETAN	
1. Helburu estrategikoak	Gauegiz Arteagako herritarrek biztanle gehiagoko udalerrri baten zerbitzu berberak izatea lortzea kostu ekonomiko berberarekin.
2. Helburuak	Kirol, kultur eta gizarte dinamika sortzea, herritarrei bizi kalitatea eskainiz.
3. Lorpen epea	2019-2021.
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none">- 2019ko ekitaldia: 9.000*- 2020ko ekitaldia: 9.000*- 2021eko ekitaldia: 9.000* *B), C), D) eta E) dirulaguntza ildoak dirulaguntza deialdi bakar baten bidez exekutatu dira aurrekontu aplikazio baten kontura; horren zenbatekoa dirulaguntza ildo hauen artean banatuko da, aurkeztutako eskaeren heinean.
5. Ekintza Plana	Dirulaguntzaren xedea den zenbatekoa erroldatuen eta ez-erroldatuen arteko ordainketa tarifen aldeari egokituko zaio, betiere jarduera hori Gauegiz Arteagan eskaintzen ez bada.
6. Planaren helburuekin zerikusia duten jarraipenaren, etengabeko ebaluazioaren eta adierazleen erregimena	Adierazleak: Honako adierazle hauek aztertuko dira: <ul style="list-style-type: none">- Eskaera kopurua- Emakida kopurua- Uko kopurua- Emandako kreditua, guztira
7. Emakidaren araubidea / modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenduna <input checked="" type="checkbox"/> Norgehiagoka
8. Onuradunak	Gauegiz Arteagako pertsona erroldatuak gutxienez sei hilabeteko antzintasunarekin, baldin eta deialdiaren gutxieneko irizpideak betetzen badituzte.
9. Ukitutako aurrekontu aplikazioak eta zenbatekoak	231 48000 Familientzako dirulaguntza



D)

DIRULAGUNTZA ILDOA: BERDINTASUNA GAUTEGIZ ARTEAGATIK KANPO DAUDEN MUSIKA ESKOLETAKO TASETAN	
1. Helburu estrategikoak	Gauegiz Arteagako herritarrek biztanle gehiagoko udalerrri baten zerbitzu berberak izatea lortzea kostu ekonomiko berberarekin.
2. Helburuak	Kirol, kultur eta gizarte dinamika sortzea, herritarrei bizi kalitatea eskainiz.
3. Lorpen epea	2019-2021.
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none">- 2019ko ekitaldia: 9.000*- 2020ko ekitaldia: 9.000*- 2021eko ekitaldia: 9.000* *B), C), D) eta E) dirulaguntza ildoak dirulaguntza deialdi bakar baten bidez exekutatu dira aurrekontu aplikazio baten kontura; horren zenbatekoa dirulaguntza ildo hauen artean banatuko da, aurkeztutako eskaeren heinean.
5. Ekintza Plana	Dirulaguntzaren xedea den zenbatekoa erroldatuen eta ez-erroldatuen arteko ordainketa tarifan aldeari egokituko zaio, betiere jarduera hori Gauegiz Arteagan eskaintzen ez bada.
6. Planaren helburuekin zerikusia duten jarraipenaren, etengabeko ebaluazioaren eta adierazleen erregimena	Adierazleak: Honako adierazle hauek aztertuko dira: <ul style="list-style-type: none">- Eskaera kopurua- Emakida kopurua- Uko kopurua- Emandako kreditua, guztira
7. Emakidaren araubidea / modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenduna <input checked="" type="checkbox"/> Norgehiagoka
8. Onuradunak	Gauegiz Arteagako pertsona erroldatuak gutxienez sei hilabeteko antzintasunarekin, baldin eta deialdiaren gutxienerako irizpideak betetzen badituzte.
9. Ukitutako aurrekontu aplikazioak eta zenbatekoak	231 48000 Familientzako dirulaguntza



DIRULAGUNTZA ILDOA: GAUTEGIZ ARTEAGAKO HERRITARREN ARTEAN EUSKARA IKASTEA SUSTATZEA	
1. Helburu estrategikoak	Udalerrian gehiengoaren hizkuntza dena ikasteko erabakia hartzen duten pertsonen laguntza eskaintzea.
2. Helburuak	Udalerriko euskaldunen kopurua handitzea.
3. Lorpen epea	2019-2021.
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none">- 2019ko ekitaldia: 9.000*- 2020ko ekitaldia: 9.000*- 2021eko ekitaldia: 9.000* *B), C), D) eta E) dirulaguntza ildoak dirulaguntza deialdi bakar baten bidez exekutatu dira aurrekontu aplikazio baten kontura; horren zenbatekoa dirulaguntza ildo hauen artean banatuko da, aurkeztutako eskaeren heinean.
5. Ekintza Plana	Edozein euskaltegi edo barnetegitan matrikulatzeagatiko dirulaguntzaren bidez.
6. Planaren helburuekin zerikusia duten jarraipenaren, etengabeko ebaluazioaren eta adierazleen erregimena	Adierazleak: Honako adierazle hauek aztertuko dira: <ul style="list-style-type: none">- Eskaera kopurua- Emakida kopurua- Uko kopurua- Emandako kreditua, guztira
7. Emakidaren araubidea / modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenduna <input checked="" type="checkbox"/> Norgehiagoka
8. Onuradunak	Gauegiz Arteagako pertsona erroldatuak gutxienez sei hilabeteko antzintasunarekin, baldin eta deialdiaren gutxieneko irizpideak betetzen badituzte.
9. Ukitutako aurrekontu aplikazioak eta zenbatekoak	231 48000 Familientzako dirulaguntza



E)

DIRULAGUNTZA ILDOA: KANALA AUZOKO JAI EI LAGUNTZA ESKAINTZEA	
1. Helburu estrategikoak	Kanala auzoan jaien ospakizunari eustea eta hori sustatzea.
2. Helburuak	Kanala auzoa kultura aldetik dinamizatzea auzoko jaien bitartez.
3. Lorpen epea	2019-2021.
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none">- 2019ko ekitaldia: 2.900- 2020ko ekitaldia: 2.900- 2021eko ekitaldia: 2.900
5. Ekintza Plana	Kanala auzoko jaietan antolatzen diren jardueretarako dirulaguntzaren bidez.
6. Planaren helburuekin zerikusia duten jarraipenaren, etengabeko ebaluazioaren eta adierazleen erregimena	Adierazleak: Honako adierazle hauek aztertuko dira: <ul style="list-style-type: none">- Jaietan aurrera eramandako jarduketak- Ukitutako biztanle kopurua- Emandako kreditua, guztira
7. Emakidaren araubidea / modalitatea	<input checked="" type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenduna <input type="checkbox"/> Norgehiagoka
8. Onuradunak	Kanala auzoko jaiak antolatzeaz arduratzen diren erakunde edota pertsonak.
9. Ukitutako aurrekontu aplikazioak eta zenbatekoak	338 48100 Kanalako jai batzordearentzako ekarkina



F)

DIRULAGUNTZA ILDOA: KANALA AUZOKO GIZARTE ETXEAN AURRERA ERAMATEN DEN JARDUERA BABESTEIA	
1. Helburu estrategikoak	Kanala auzoan gizarte eta kultur bizitza dinamikoa lortzea.
2. Helburuak	Kanala auzoa kulturaren aldetik dinamizatzea.
3. Lorpen epea	2019-2021.
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none">- 2019ko ekitaldia: 2.000- 2020ko ekitaldia: 2.000- 2021eko ekitaldia: 2.000
5. Ekintza Plana	Gizarte Etxeko eraikina eta Gizarte Etxea kudeatzen duen erakundeak antolatzen dituen jarduerak mantentzeko dirulaguntza bidez.
6. Planaren helburuekin zerikusia duten jarraipenaren, etengabeko ebaluazioaren eta adierazleen erregimena	Adierazleak: Honako adierazle hauek aztertuko dira: <ul style="list-style-type: none">- Gizarte Etxean aurrera eramandako jarduketak.- Ukitutako biztanle kopurua- Emandako kreditua, guztira
7. Emakidaren araubidea / modalitatea	<input checked="" type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenduna <input type="checkbox"/> Norgehiagoka
8. Onuradunak	Kanala auzoko Gizarte Etxeko elkarteak.
9. Ukitutako aurrekontu aplikazioak eta zenbatekoak	338 48101 Kanalako Gizarte Etxearen dirulaguntza



G)

DIRULAGUNTZA ILDOA: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN ETA BULTZATZEN DUTEN EKIMENAK ETA PROIEKTUAK BABESTEIA	
1. Helburu estrategikoak	Euskararen erabilera sustatzen duten jarduerak aurrera eramaten dituzten erakunde publiko edo pribatuak babestea.
2. Helburuak	Euskara sustatzea hizkuntza moderno gisa hainbat eremu publiko eta pribatutan.
3. Lorpen epea	2019-2021
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none">- 2019ko ekitaldia: 300- 2020ko ekitaldia: 300- 2021eko ekitaldia: 300
5. Ekintza Plana	Honako erakundeei zuzeneko dirulaguntzak emanez: Araba euskaraz, Ibilaldia, Kilometroak, Nafarroa oinez, Herri Urrats, Korrika, etab.
6. Planaren helburuekin zerikusia duten jarraipenaren, etengabeko ebaluazioaren eta adierazleen erregimena	Adierazleak: Honako adierazle hauek aztertuko dira: <ul style="list-style-type: none">- Egindako jarduketak- Ukitutako biztanle kopurua- Emandako kreditua, guztira
7. Emakidaren araubidea / modalitatea	<input checked="" type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenduna <input type="checkbox"/> Norgehiagoka
8. Onuradunak	Euskararen aldeko ekimenak antolatzen dituzten erakundeak: Araba euskaraz, Ibilaldia, Kilometroak, Nafarroa oinez, Herri Urrats, Korrika, etab.
9. Ukitutako aurrekontu aplikazioak eta zenbatekoak	335 48104 Ibilaldia 335 48107 Herri Urrats 335 48105 Kilometroak 335 48108 Korrika 335 48106 Nafarroa oinez



H)

DIRULAGUNTZA ILDOA: GAUTEGIZ ARTEAGAKO MERKATARITZA TXIKIA DINAMIZATZEKO EKINTZA	
1. Helburu estrategikoak	Gauegiz Arteagan merkataritza jarduera edo denda txikiak ezartzeko eta sortzeko lana sustatzea.
2. Helburuak	Gauegiz Arteagan denda txikien kopurua handitzea lortzea
3. Lorpen epea	2019-2021
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none">- 2019ko ekitaldia: 4.000- 2020ko ekitaldia: 4.000- 2021eko ekitaldia: 4.000
5. Ekintza Plana	Gauegiz Arteagan ezarriko den merkataritza jarduera edo denda txikia abian jartzeko hasierako gastuetarako dirulaguntzaren bidez.
6. Planaren helburuekin zerikusia duten jarraipenaren, etengabeko ebaluazioaren eta adierazleen erregimena	Adierazleak: Honako adierazle hauek aztertuko dira: <ul style="list-style-type: none">- Eskaera kopurua- Emakida kopurua- Uko kopurua- Emandako kreditua, guztira
7. Emakidaren araubidea / modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenduna <input checked="" type="checkbox"/> Norgehiagoka
8. Onuradunak	Gauegiz Arteagan merkataritza jarduera edo denda txikia ezartzen duten pertsona edo erakundeak, dirulaguntzen inguruan aplikatu beharreko ordenantzaren gutxieneko baldintzak betez.
9. Ukitutako aurrekontu aplikazioak eta zenbatekoak	4312 47100 Merkataritza txikirako dirulaguntza



I)

DIRULAGUNTZA ILDOA: GAUTEGIZ ARTEAGARENTZAT BEREbiziko INTERESA DUTEN PROIEKTUAK	
1. Helburu estrategikoak	Gauegiz Arteagan udalerrarentzat garrantzitsuak diren proiektuak aurrera eramatea lortzea.
2. Helburuak	Gauegiz Arteagan kultur, gizarte eta kirol dinamizazio eta egonkortasuna lortzea.
3. Lorpen epea	2019-2021
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none">- 2019ko ekitaldia: 5.000- 2020ko ekitaldia: 1.000- 2021eko ekitaldia: 1.000
5. Ekintza Plana	Gauegiz Arteagarentzat berebiziko interesa duten proiektuetarako zuzeneko dirulaguntza bidez.
6. Planaren helburuekin zerikusia duten jarraipenaren, etengabeko ebaluazioaren eta adierazleen erregimena	Adierazleak: Honako adierazle hauek aztertuko dira: <ul style="list-style-type: none">- Egindako jarduketak.- Ukitutako biztanle kopurua- Emandako kreditua, guztira
7. Emakidaren araubidea / modalitatea	<input checked="" type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena / Nominatiboa, hitzarmenduna <input type="checkbox"/> Norgehiagoka
8. Onuradunak	Gauegiz Arteagarentzat berebiziko interesa duten proiektuak egingo dituzten subjektu edo erakundeak .
9. Ukitutako aurrekontu aplikazioak eta zenbatekoak	Zehazteko